



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 9a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00020. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Droga-mendekotasunaren III. Foru Planaren amaierako ebaluazioa egin dezan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiruko mahai bat ezar dezan sare itunduko ikastetxeetako negoziaketarako, patronalen eta sare horretako langileak ordezkatzen dituzten sindikatuen parte-hartzearekin. EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00059. Galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Plana prestatzeko buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00060. Galdera, 2023an kenkari fiskalen onura jaso zuten pentsiodunei buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00039. Galdera, behin harrerarako egokitasuna emanda lehentasun-ordena ezartzeko irizpideari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00062. Galdera, Lodosatik gertuko herrietatik DBHko ikasketak euskaraz egiteko garraioari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00063. Galdera, “Nafarroako Inbertsio Institutua, SL” sozietate publikoari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00064. Galdera, 2023an zehar lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko espedientei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00065. Galdera, Ecofert eta Lacoya enpresen Artaxoako plantetako hondakinen analisiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00067. Galdera, libxiatuen lekualdaketa kudeaketari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (11. or.).

- 11-24/PES-00068. Galdera, Justizia Jauregiko seigarren solairuan sinbologia frankista egoteari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00069. Galdera, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioaren instalazio berriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00020. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Droga-mendekotasunaren III. Foru Planaren amaierako ebaluazioa egin dezan

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Droga-mendekotasunaren III. Foru Planaren amaierako ebaluazioa egin dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Drogei eta adikzioei aurrea hartzeko III. Plana (2018-2023) 2019ko martxoaren 6an onetsi zen Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez. Plan hori, zeinak aurreko planak biltzen baitzituen, honako hauen esparruan kokatzen da: Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren 2013tik 2020ra bitarteko Plana, Adikzioei buruzko 2017tik 2024ra bitarteko Estatu-estrategia, Drogei buruzko Plan Nazionaleko Adikzioei buruzko 2018tik 2020ra bitarteko Ekintza Plana eta Nafarroako

Osasun Plana nahiz gure erkidegoko bestelako plan estrategiko batzuk.

Planean 3 jarduketa-arloetako bakoitzerako ebaluazio-adierazleak ezarri ziren: gobernantza, lidergoa eta koordinazioa; osasunaren sustapena eta prebentzioa; ezagutzaren sozializazioa, prestakuntza eta ikerkuntza. Planak ebaluazio jarraitua eta azken ebaluazioa planteatzen zituen, hobekuntza etengabea ahalbidetzeko eta informazio garrantzitsua eduki ahal izateko Drogei eta adikzioei aurrea hartzeko Nafarroako IV. Plana taxutzeari begira.

2023ko otsailaren 16an, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen besteak beste honako hau jasotzen zuen mozio bat:

1. Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazterien errealitatera egokitzeko.

Planaren indarraldia agortu da, eta oraindik ere ez da Drogei eta adikzioei aurrea hartzeko III. Planaren azken ebaluazioa egin, eta Drogei eta adikzioei aurrea hartzeko Nafarroako IV. Plana ez da ez gaurkotu ez onetsi ere.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Droga-mendekotasunari buruzko III. Foru Planaren ebaluazioa gehienez ere sei hilabeteko epean egin dezan.

2. Droga-mendekotasunari buruzko foru plan berri bat presta dezan, arlo horretako adituekin eta elkarteekin lankidetzan, osasun arlokoak nahiz hezkuntza edo gizarte zerbitzuak izan.

3. Foru plan berrian portaera-adikzioen gaineko ikuspuntua jaso dezan.

4. Foru plan berrian berriz ere jaso dezan laguntzaren eta gizarteratzearen esparrua, aurreko planetik kendu zena.

5. Planaren koordinatzailearen figura berreskuratu dezan, figura hori funtsezkoa baita planaren garapenean lidergoa eta zeharkakotasuna bermatzeko.

6. Planaren koordinazio eta jarraipen egiturak indartu ditzan.

7. Droga-mendekotasunari buruzko IV. Foru Plana gehienez ere urtebeteko epean aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita hiruko mahai bat ezar dezan sare itunduko ikastetxeetako negoziaketarako, patronalen eta sare horretako langileak ordezkatzan dituzten sindikatuen parte-hartzearekin

EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita hiruko mahai bat ezar dezan sare itunduko ikastetxeetako negoziaketarako, patronalen eta sare horretako langileak ordezkatzan dituzten sindikatuen parte-hartzearekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Mozio honen jatorrian uste oso bat dago: gaur gaurkoz, hiruko mahaia da sare itunduko ikastetxeak kontrolatzeko modurik eraginkorrena, egokiena, demokratikoena eta progresistena. Itunen

eta hitzarmenen sinadura eztabaidatzeko negoziatio-mahai bat, non patronalak, langileen ordezkari sindikalak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren ordezkariak eseriko baitira, non administrazioarekin zerikusia duten kontuak, laneko kontuak eta gardentasunari buruzkoak eztabaidatu eta kontrastatuko baitira, halako moduan non argi eta garbi ezartzen ahalko baita ikastetxe horiei emandako diru publikoa zertan erabiltzen den.

Jakin badakigu PSNk, Geroa Baik eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroak legegintzaldi honetarako itxitako akordioko desadostasun tasatu bat dela hori. Baina ez diogu uko egiten desadostasun hori gainditzeari, eta sistema hori ona dela argudiatzen eta defendatzen jarraituko dugu, hori izan baitaiteke sare itunduko patronalak kontrolatzeko tresnarik eraginkorrena.

Lehendik ere badago esperientzia bat –oso positiboa–, ez zuena eragin sortzea ezta eskatzea ere beste kolektibo batzuen inolako mahairik (kasua balitz, ez ginatete aurka azalduko), ez zuena eragin administrazioak ahalmena galtzea ikastetxe horien aurrekontua kontrolatzeko eta mugatzeko. Alderantziz baizik. Administrazioarekiko ituna daukaten titulartasun pribatuko ikastetxeetako eta kooperatibetako irakasleen eta irakasle ez diren langileen ordezkari sindikalak negoziatioan egotea funtsezkoa da mahai gainean jartzeko –patronalak ere esertzen diren mahai gainean jartzeko–, eurak ere bertan eserita, lan-baldintzei buruzko arazo guztiak, ikusteko ea betetzen diren ala ez, eta zenbateraino eta zerga-

tik betetzen diren ala ez, Administrazioak sare horrekin sinatutako hitzarmenak. Esperientziak erakusten du hiruko mahaian lortu dela gardentasunari buruzko hitzarmenik zorrotzenak, lan-eskubideekiko errespeturako bermearekin, eta abar.

Orain hitzarmena berritu behar da. Eta horregatik, hain zuzen ere ikastetxe horiei eskainitako funts publikoak zertara bideratzen diren argi eta garbi jakin ahal izateko hezkuntza-sare itunduko patronalak kontrolatzeko berme guztiak eduki nahi ditugulako, uste dugu hiruko mahai berriz ere eskatzeko une aproposa dela hau.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiruko mahai bat eratu dezan sare itunduko negoziaketarako, patronalen eta sare horretako langileak ordezkatzeko dituzten sindikatuen parte-hartzearekin.

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Eledunak: María Solana Arana, Eneka Maiz Ulaiar

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00059. Galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Plana prestatzeari buruzkoa

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Plana prestatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2025-2028 aldirako Nafarroako Enplegu Plana taxutze aldera Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan negoziazioak hasiko direla iragarri baita, Nafarroako Gobernuak zer lan-proposamen eta bide-orri darabil gogoan 2025-2028 aldirako Nafarroako Enplegu Plana taxutzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00060. Galdera, 2023an kenkari fiskalen onura jaso zuten pentsiodunei buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, 2023an kenkari fiskalen onura jaso zuten pentsiodunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroan zenbat pentsiodunek baliatu zituzten zerga-kenkariak 2023an? zenbatekoa izanen da haien igoera 2024an?

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-24/PES-00039. Galdera, behin harrerarako egokitasuna emanda lehentasun-ordena ezartzeko irizpideari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, behin harrerarako egokitasuna emanda lehentasun-ordena ezartzeko irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5e an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Behin harrerarako egokitasuna emanda, zein da lehentasun-ordena ezartzeko irizpidea?

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00062. Galdera, Lodosatik gertuko herrietatik DBHko ikaske- tak euskaraz egiteko garraioari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Lodosatik gertuko herrietatik DBHko ikasketak euskaraz egiteko garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Datorren ikasturtean, Lodosako Institutuan, DBH D ereduan eskaintzeko asmoa du Hezkuntza Departamentuak.

Izango al dute garraioa bermaturik Lodosara DBH euskaraz egitera joango diren inguruko herrietako ikasleek?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru Parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00063. Galdera, “Nafarroako Inbertsio Institutua, SL” sozietate publikoari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, “Nafarroako Inbertsio Institutua, SL” sozietate publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sozietate Publikoen, Abalen eta Afera Ekonomikoen Ataleko buruaren 2022ko apirilaren 29ko txostenean honako hau esaten da hitzez hitz 10. orrialdean (txosten hori Instituto Navarro de Inversiones SL sozietate publikoa eratzea baimendu zuen 2022ko maiatzaren 11ko gobernu-akordioaren espedientean sartu zen):

"Badira, halere, beste alderdi negatibo batzuk ere:

1.- IGAE-Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiak Nafarroako Inbertsio Institutuaren kontuak Nafarroako Gobernuarekin bateratu ez izanari buruzko aldeko iritzirik eman ez izana, horrek finantza-baliabideak lortzeko ahalmen handiagoa emanen baitzion Institutuari (foru-erkidegoarena kaltetuko ez lukeen zorpetzearen bidez), Nafarroaren ekonomiaren transformaziorako, babeserako eta garapenerako benetako tresna bihurtuta hartara.

2.- Nafarroako Inbertsio Institutuaren sorrerarekin batera egindako jarduketak ez dira aski Nafarroako enpresa-sarearendako finantza-babesera, ekintzaitzara eta aholkularitzara bideratutako enpresa-sektore publikoaren eskumenen berrantolamendua borobiltzeko".

Zeri buruz ari gara 1. puntuan "Nafarroako Inbertsio Institutuaren kontuak Nafarroako Gobernuarekin bateratu ez izanari buruzko aldeko iritzirik eman ez izana" esatean?

Zeri buruz ari gara eta zer izan ziren txosten horretako 5. orrialdean aipatzen diren "aurretiaz egindako kontsultak"? Nork egin zituen kontsulta horiek, nola egin ziren, noiz egin ziren eta zein izan zen emaitza?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00064. Galdera, 2023an zehar lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko espedientei buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, 2023an zehar lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko zenbat espediente egin ditu 2023an zehar?

Zenbatean?

Zer herritan?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n.

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/PES-00065. Galdera, Ecofert eta Lacoya enpresen Artaxoako plantetako hondakinen analisiari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ecofert eta Lacoya enpresen Artaxoako plantetako hondakinen analisiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Artaxoako Ecofert eta Lacoya plantetako hondakinen trazabilitate-fitxaren analisi osoak direla-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2024ko urtarrilaren 31ko prentsaurrekoan adierazitakoari buruz:

1.- Iragandako denboran metal astunak dekantatu ahal izan diren baltsan hondoa edo lohiak analizatu al dira?

2.- Lixibiaturik atera ahal izan al dute analisia egin aitzin?

3.- Diluzio-prozesurik gertatu ahal izan al da alegia, likido ez toxikoarekin nahastea, emaitza "hobetzea" ekarrita-?

4.- 2023ko otsailean egindako analisiaren emaitza eko toxikoa da ala ez?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00067. Galdera, lixibiatuen lekualdaketaren kudeaketari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, lixibiatuen lekualdaketaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Ecofert Sansoain eta Lacoya Medioambiental enpresak kautelaz itxi zituenetik, baltsetako lixibiatuen lekualdatzea MITECOren menpe dagoen baina Nafarroako Gobernuko Departamentuan sartuta dagoen ESIR plataformaren bidez kudeatzea exijitu al da? Hala baldin bada, lixibiatu horien lekualdaketa-erregistroak jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00068. Galdera, Justizia Jauregiko seigarren solairuan sinbologia frankista egoteari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, Justizia Jauregiko seigarren solairuan sinbologia frankista egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak ba al daki Justizia Jauregiaren seigarren solairuan –honekin batera doazen argazkietan ikus daitekeenez– sinbologia frankista dagoela? Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du sinbologia hori erretiratzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-24/PES-00069. Galdera, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioaren instalazio berriei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioaren instalazio berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer instalazio berri darabilzue gogoan Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioa bertan paratzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces